

IRAKURKETA LANTZEN. Estrategiekin praktikatzen

Jarduera honen bidez, irakurketa lantzeko faseei lotutako estrategiak baliatuko dituzu ikasleei testuak irakurtzeko proposamena egiten diezunean. Helburua da praktika didaktikoaren analisia egitea eta estrategia horien baliagarritasuna aztertzea.

Prozedura

- Aukeratu ikastalde bat
- Hiru astean zehar talde horretako ikasleek irakurriko dituzten **hiru testu**ekin baliatu atxikitako txantiloia.
- Bertan adierazi hiru testu horiek lantzean zein estrategia/teknika baliatu duzun (denak erabiltzen badituzu, primeran)
- Hiru testuak irakurrita, honako hauek ondorioztatu:
 - Zein izan zaizu baliagarria?
 - Zer faltako litzateke zerrenda honetan?
 - Zure praktika didaktikoa zertan hobetu behar duzu?

Ikastaldea: _____ Arloa: _____	testua -----	testua -----	testua -----
Irakurri baino lehen			
Irakurketaren xedea zehaztu. Eta horren arabera identifikatu zer irakurketa mota eskatzen duen testuak.			
Begirada globala eman testuari, formatuaz konturatzeko eta testu-generoari buruzko ezagutzak aktibatzeke.			
Gaiaren inguruko aurre-ezagutzak aktibatu. Zer dakizu(e) horretaz? Zertan datza? Titulua aztertu.			
Testuaren markei erreparatu: izenburuei, azpitituluei, atalei, azpimarrei, letra lodiei...			
Grafiko, irudiei ...errepararazi ea informazio osagarriak ematen duten ikusteko.			
Hitz gakoak antzeman, ezagunak identifikatu eta ezezagunak nabarmendu.			
Irakurri bitartean			
Testua irakurri ahala, irudiei, grafiko eta eskemei erreparatu testuarekin duten lotura ikustarazteko			
Atalez atal, beharrezkoa denean, irakurritako paragrafoak, esaldiak edo txatalak laburtu, markatu edo nabarmendu.			
Lexikoa, esaldi korapilatsuak identifikatu. Hitzak ulertzen ez dituztenean, definitu, hiztegian begiratu, ezagutzen dituzten hitzekin konparatu, testuinguruari begiratu, glosarioa egin, lotu aurretik dakitenarekin,...			
Zailtasunak antzeman eta berriro irakurri pasarterik zailenak, hiztegiatara jo, galdetu...			
Hipotesiak egin eta galdetu, bai formari bai edukiari lotutako hipotesiak eta galderak egin			
Irakurri ondoren			
Solasean aritu irakurritakoaren inguruan, eta galdetu zer atal izan den zailena edo korapilatsuenena, eta zergatik.			
Alderatu liburuaren aurkibidea, baldin badago, ikasleek ulertu dutenarekin; eta konturarazi izenburuak eta epigrafeak kontsultatzea oso baliabide erabilgarria dela irakurritakoaz gogoratzeko, eta buru-			

laburpena egiteko.			
Gogorarazi testuko lexiko berria, eta egiaztatu esanahia ulertu dutela.			
Lagundu irakurritakoa berrantolatzen, eskemak, laburpenak, kontzeptu-mapak... eginez.			
Bultzatu irakurritakoa berrerabiltzera, ezagutza berria eraikitzen laguntzeko.			

ONDORIOAK

Zein izan zaizu baliagarria?

Zer faltako litzateke zerrenda honetan?

Zure praktika didaktikoa zertan hobetu behar duzu?